Kirola "Antxintxinka" krosa Soraluzetik Bergarara
Sutondoaren epelean Pedro Martinez liburu-biltzailea

Bitpilean

SORALUZEKO
HAMABOSTEKARIA
118. alea, 2005eko
irailaren 30ean

Tornileria-estanpazioa
eta
extruzioa hotzean

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefonoa: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

Piztu Irratia!
Elkarrekin, zabal dezagun ahots berri bat

4.500 bazkide behar ditugu

Piztu Irratia!
Elkarrekin, zabal dezagun ahots berri bat

Egungo irratigintzak duen hutsunea betetzeko asmoz, Euskal Herriko irrati nazionala, herrikoa eta profesionala sortzeko bideari ekin dio Azti-begia elkarteak. Orain, irratia errealitate bilakatzeko zure laguntza behar dugu. 4.500 bazkide lortu behar ditugu egun ametsa den irratiak dialean bere tokia izan dezan. Egin zaitez bazkide!

BAZKIDETZA ORRIA

KUOTA / CUOTA ☒ 7€ hilabetean / 7€ al mes **TELEFONOA / TELEFONO**

IZENA / NOMBRE
ABIZENAK / APELLIDOS
N.A.N. / D.N.I.
P. ELEKTRONIKOA / E MAIL
HELBIDEA / DIRECCION **POSTA KODEA / C. POSTAL**
HERRIA / MUNICIPIO **HERRIALDEA / PROVINCIA**
KONTU KORRONTEA / CUENTA CORRIENTE
IBAN kodigoa | ERAKUNDEA | BULEGOA | KONTROLA | KONTU ZENBAKIA

Helbide honetara bidali: 20080 P.K.: 3316 DONOSTIA

aztibegia ELKARTEA www.aztibegia.net

Irratia errealitate bilakatzeko, egin zaitez bazkide!

MAITE KINTANILLA

Egunerokotasunetik ihesi...

Hasia da iluntzen. Beste egun neketsu baten amaiera abian da. Leher eginda nago, ikasketak alde batetik, eguneroko buruhausteak bestetik...

Ezer egiteko gogorik gabe telebista piztu dut, egunerokotasunetik apur bat ihes egiteko asmoz. Zapping-a egiten hasi eta iragarkiz hornitua orain ere kanal gehiengoa. Alperkeria dela eta etsituta erdal katai bat utzi dut. Emakume bat ageri da; ederra, begi bistaz ikus daitekeen errorerik ez du batere, emakume perfektua ezta?!! Beste behin ere emakumearen gorputza saltzeko erabilia da, genero berdintasunean atzera pauso bat emanez, emakumeon izatea zapalduz. Rolak definitzen dituzte, ostera ere iragarki hauen biktima ororri hezkuntza atzerakoi eta errespetaezina emanez. Eta bidegabetasun honen kontrako legeak? Badaude, beste asko legez...

Amorratzen hasia naiz eta euskal hizkuntza ageri den kanal bakarra hautatu dut. Hemen ere anuntzio garaia. Hara! Kilometroena! Gertu daukagun ikastola baten laguntzan, EUSKARA gure hizkuntzaren laguntzan. Askorentzat mozkortzeko beste egun bat, besterik ez, erdaraz mintzatzen direlarik ...euskal festan erdaraz... "Plazara" oraingo leloa, eta nik askori "plazara zer?" galdetuko nieke. "Plazara kilolitroak?"

Gaur egun hastera doa. Berri asko dabiltza gaurkoan pil-pilean. Katrina...Rita...izen ezagunak, ez al da hala? Oraingoan ere munduko txirotasuna agerian utzi dutenak. Gudak... beraien gordintasunean. Donostiako zinemaldia gori-gorian. Obaba eta Aupa etxebeste! filmak, entzunak azkenaldian. Alemaniako hauteskundeak... Kirolean bada berri gazi-gozo bat... Somarriba. Munduko txapelketan erlojuaren aurka zilarra lortu ondoren, erretiroa hartzera doa. Euskal txirrindularitzak izan duen kirolari trebea, bai horixe! Bejondeizula Joane! Hontan berriz, bi emakume dira protagonista, baina gizartearen zati handi bat errepresentatzen dute, bikote dira. Seme bat eduki berri dute, baina legediaren arabera bietako batena bakarrik kontsideratzen da haurra. Amorruz bete nau honek. Sexuak ez du zer esanik benetako maitasunean, zergatik hori ez ulertu? Maitasuna besterik ez...sentimendu eder hori!

Nazkatu naiz! Akituta piztu dut telebista baina nekatuago amaitu dut ikusitakoa ikusiz. Egunerokotasunetik deskonektatzeko asmoz ipinita emaitza bestelakoa izan da. Hobe hurrengoan asmo hori izanik gero, liburu bat hartu eta fantasiaren munduan murgildu.

Telegrapak

Kaixo irakurle. **Stop.** juan dira opor usainak. **Stop.** herrixa bixi-bixi da berriro eta badago zer ipini Pil-pileanen. **Stop.** presarenak harrittuko zittuzten. **Stop.** baleike onuragarri izatia uholdiei aurre egitteko baina... **Stop.** ondo pentsatu biharreko aldaketia litzake. **Stop.** nun ikusi dozue herrixaren barrukaldian holako presarik daukan beste herririk?. **Stop.** zarrak diñue, lehenago kanpotik jentia tropelka etortzen zala Plaentxiara bañura eta peskara. **Stop.** bagara batzuk oindio, noizbaitt ibaixan berriz bañatu eta txanaletan peskan egitteko esperantzia gordetzen dogunak. **Stop.** baitta estropadak edo balsak jeitsierak ikusteko ilusiñua daukagunak. **Stop.** ibaixan zeozer egitten danian herri guztia batzen da bertara. Stop. horrek badauka garrantzixa eta kontuan hartzekua bihar leuke izan. **Stop.** kontuan hartzekua bai behintzat. Stop. ikusiko da zer dakarren goitik beherako urak. **Stop.** eta gaiz aldatuta. **Stop.** mugikortasunaren astiak gogoeta gazi-gozoak laga dittu. **Stop.** argi dago Deba Bailaran autuari egitten jakon alternatiba nagusixa antxitxika egittia dala. **Stop.** krossian edo autobusaren atzetik. **Stop.** badago zer hobetua bai!. **Stop.** inkestak argi diño!. **Stop.** edarra berriz, elkarrekin autuan juateko Debegesan ipini daben zerbitzua. **Stop.** holako ideia eta zerbitzu gehixao balego aepelago biziko ginake gizarte gero eta hotzago honetan. **Stop.** zeba "elkarrekin" horrek rollo ona dakar beti, baldin benetazkua bada. **Stop.** horrek eta beste hainbat gai dauzkazu aukeran ale honetan. **Stop.** irakurri eta egin zure gogoetak Kilometroak eginaz. **Stop.** onddo tortila ogittartekuakin. **Stop.** muk!

pilpilean

Argitaratzailea:
Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behea, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonoa 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria eta Egoitz Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Azala: Fernan Oregi
Diseinua eta Maketazioa: Silvio Vaz Caro
I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.

SORALUZEKO UDALA | EUSKO JAURLARITZA | GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

Erreportaia

"Urak juan eta presagiñian hasi", dio esaera zaharrak, . Alderantzizko zerbait gerta daiteke datozen hilabeteetan gure ibaian: presia desegin eta urak juan, alegia.

Zorion agurrak

Nora Arizaga
Irailaren 25ian 17 urte
Zorionak prexioxa!!
Ikearri maitte haugu! Egun zoragarrixa pasa deizula! Kuadrilakuen eta familixakuen partetik.

Oier Gonzalez
Urriaren 11n 2 urte
Zorionak eta muxu haundi bat!!
Etxeko danen partetik.

Iraia De Los Santos
Urriaren 1ian 2 urte
Zorionak potxola!!
Orain bezala alai eta txintxo jarraitu!
Etxeko danen partetik.

Leire
Irailaren 27an urtebete
Zorionak Leire !!
Jarraitu txintxo eta polita izaten!
Muxu haundi bat! paaaaa!
Iker, Amaia eta Gaizkaren partetik.

Nora Mendia
Irailaren 30ian urtebete
Zorionak potxola!!
Muxutxu asko polittori!
Etxeko danen partetik.

Aritz Laskurain
Urriaren 3an 26 urte
Zorionak txapeldun!!
Muxu haundi bat!
Etxeko danen partetik.

gutuna

Zementoa eta adreilua bakarrik??

Artikulu honen bitartez jakinarazi nahi dizuegu Hirigintzako Batzordeak duen aurrekontua zertan gauzatzen den.herriko jaiak aurretik Soraluzeko Askatasun Haizeak herri plataformak 2005-eko aurrekontuei buruzko idatzi bat atera zuen beraien eritzi partikularra azalduz. Grafiko baten bitartez argi ikus zitekeen sailez-sail aurtengo aurrekontua nola dagoen sailkatuta. Egia da hirigintzako aurrekontua besteekin alderatuta diru gehien jasotzen duen alorra dugula baina datu orokor hauek ematetik at, hauen atzean dauden proiektuen berri ematea ere komenigarria litzateke. Gehien bat herritarrei jakinarazteko udal honek zemento eta adreiluetaz gain beste behar batzuk ere kontutan badituela. Dakizuenez Soraluzeko Udalak IZARTU I (2001-2005) eta IZARTU II (2004-2008) plangintzen barnean herria zaharberritzeko hainbat proiektu burutu eta burutzear dagoela. Eta honen arian 2005ean burutuko diren proiektuen berri emango dizuegu.

IZARTU I plangintzaren barnean aurreikusitako proiektuen artean: Eremu publikoak urbanizatzeko programaren barnean, **Arrizabaletako parkearen proiektua** gauzatuko da. Bai, parke berri bat, jendeak aisialdirako toki berri bat eduki dezan jakinekoa baita herri mailan dagoen eskasia azpiegitura hauen aldetik. Aipatzekoa da proiektu hau IZARTU I plangintza onartu zenean Udal gobernuak bultzatu eta adostu zuen proiektua dela. Martxan ipiniko den beste proiektu bat, konkretuki hurrengo hilabetean **langabetutako emakumeentzako telezentrua** izando litzateke. Proiektu honen helburua langabetutako emakume, jubilatu, etorkin eta etxeko andreek informatikari buruzko oinarrizko nozioak bereganatzea izango litzateke. Udalak apostu garbia egiten du kolektibo hau hezitzen eta lan munduari begira prestakuntza bat ematen. Plangintza honen barnean **Herria txukuntzeko partidaren barnean** hainbat ekintza burutuko dira. Honen adibide ditugu herriko zenbait parketan (Serafín Atxotegi, Txurruken, Estazioan eta Arrizabaletako parkean) ipini diren umeentzako jolasak edota etxebizitzen fatxadak berriztatzeko ematen diren diru laguntzak eta herrian ipintzen diren jarleku, seinalizazio, lorategi etb…luze bat.

IZARTU II plangintzaren barnean 2005-eko urtean aurreikusita dauden proiektuen artean bi ditugu aurten gauzatu beharrekoak. Alde batetik **Arraikua Kaleko Urbanizazioa**. Hau da, Arraikua kaleko 1, 2, eta 3 zenbakidun etxebizitzen aurrean parke bat eraikiko da, jadanik hasiak daudelarik lan hauek. Irisgarritasuna dela eta 1engo eta 2.go zenbakidun etxebizitzei metaldun bi malda eraikiko zaizkie. Azkenik 2005. urtean burutuko den azkenengo proiektua **Kalebarren eta Santa Ana kaleen urbanizazioa** izango litzateke. Kale hauen itxura guztiz aldatuko delarik burutuko diren lanengatik. Guzti hau helburu zehatz batekin, gune historikoaren peatonalizazioa bultzatzea eta jendearentzako toki eroso bat sortzea herri erdian.

Beraz 2005 garren urtean burutuko diren proiektuak kontutan edukita galdera hau egiten diogu gure buruari; zementua eta adreilua bakarrik??? Ez dugu uste, azken finean gure helburua Soraluzetarren bizi kalitatea hobeagotzea eta herriari itxura erakargarriago bat ematea da. Aurrez lan guzti hauek sortuko dituzten eragozpenengatik barkamena eskatzea nahi dizuegu, Soraluze hobeago baten alde.

SORALUZEKO UDAL GOBERNUA

gazte informazioa

Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!

Lana

Aparejadore-lanpostu bat.
Azpeitiko Udala. Aparejadore edo Arkitekto Teknikoa tituloa izatea, Euskarako 3. eskakizuna eta "B" motako gida baimena izatea eskatzen da. Epea:2005-10-14Telefonoa: 943 157200

Aparejadore edo arkitekto tekniko bat
Ibarrako Udala. Aparejadore edo Arkitekto Teknikoa tituloa izatea eta Euskarako 3. hizkuntza-eskakizuna. Epea:2005-10-03. Telefonoa: 943671138

Informatikako 2 teknikari laguntzaile
Eibarko Udala. LH II edo maila baliokidea eta 2. Hizkuntza eskakizuna, derrigorrezkoa. Oposizio-lehiaketa. Epea: 2005-10-10. Telefonoa: 943 708400.

jaiotakoak

Oier Cid perez
Izan Makinay Milán
Unai Moreno Oya

hildakoak (abuztutik)

Eusebio Escribano Casco
Florentina Izagirre Etxaniz
Gerardo Gomez Del Olmo
Eugenio Iriondo Bereziartua
Jose Etxeberria Alberdi
Dorotea Alonso Martinez
Lucia Juaristi Ucin
Gregoria Irusta Mugartegi
Celestino Churruca Mayora

Telefonoa 75 24 09
ARRANO
tabernia
ETORRI ETA GOZATU !
etxera

Joan zen astean Mugikortasunaren Astea egin zen Europan. Tartean autorik gabeko eguna ere antolatu zen. Zela dago garraio publikoa gure artean?

Ze eritzi daukazu garraio publikuaren inguruan?

Eleodoro Valez
62 urte jubilatua
Txarrena abuztuan izaten da. Abuztuan oso geizki geratzen da autobusen ordutegixa, ez dago ezer. Beste herrixetakuak konbinazino onak dauzke eta guk ordia ez daukagu ezer.

Oihane Sanchez
20 urte ikaslia
Garraio publikua nahiko geizki dago. Zerbitzu gutxi dago. Eibarrera orduro doia eta, gainera garestixa da. Bonua jartzia ondo egongo litzake, hola jende geixagok erabiliko leuke garraio publikua.

Marcelina Dueñas
66 urte jubilatua
Autobusak geizki dare, Eibarrera juteko erabiltzen dot, baina gutxi, eta Elgoiberrera juateko ez dao ezer. Hobetu egin biharko littuzkie ordutegixak.

Ander Epelde
52 urte irakaslia
Soraluze oso geizki dago komunikaziño aldetik. Trena kendu zeben eta geizki geratu da. Hau konpontzeko sarrixago ipini biharko leukie autobusa eta berriz trena martxan jarri.

Aitor Beretxinaga
14 urte ikaslia
Nere ustez hobeto litzake bizikletiakin ibiltzia eta kanpora irten bihar danian autobusak erabiltzia. Hola kutsadura gutxiago egongo litzake. Autobus gehixago jartzia ondo legoke, oin gutxi dago.

Ana Oya
46 urte langilia
Normalian kotxian ibiltzen naiz, ze oso geizki dago. Mendarora adibidez goizez bakarrik dare, kostara ez dago autobusik eta udan gaztetxuak ez dake zela juan. Jende edadetuandako Mendarorako autobus gehixago bihar lirake.

PASCUAL CHURRUCA, s.a.
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak
Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruca.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

“Autoan elkarrekin” ekimena urte guztian zehar

Udalak eta Debegesak antolatuta Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatu berri da Debabarrenean, Irailaren 22ko "Kotxerik gabeko egunaren" bueltan. Egunotan, hainbat ekintza burutu dira herri zein eskualde mailan: irailaren 20an, bizikletak konpontzen ikasteko tailerra jarri zuten Plaza Barrian; 25ean, berriz, bizikleta martxa batek Debabarrena osatzen duten herri guztiak zeharkatu zituen, gurea izan ezik. Honekin batera, ‘Autoan elkarrekin’ ekimena ere abian jarri da, lanera edo ikastera herritik kanpora doazenek autoa konpartitu dezaten bultzatzeko. Ekimen honek urte osoan zehar jarraipena izatea nahiko lukete antolatzaileek. Interesatuek 943820110 telefonora dei dezakete. (Irudian bizikletak konpontzeko egin tailerra).

Urriaren 8an Athletic-zalien bazkarixa

JATETXEA: Txurruka
IZENA EMATEKO: Gila eta Aurresku tabernetan

Soraluzeko Atlheticzaliak

Udalak Ziburu berriak jarri ditu herriko parkeetan

Dagoeneko jarri dituzte ziburu berriak Ezozi Bideko Arzabaleta parkean eta Estazioan (parkean eta eskolara bidean). Lanak datorren astean amaituko dira Serafin Atxotegi eta Txurrukengo jolastokiekin. Herri-gunea jolastokiz hornitzeko egitasmoa Izartu I programan dago jasota

Gizonezko bat tratu txarregatik atxilotuta

Irailaren 25ean ertzainek gizonezko bat eraman zuten komisaldegira ustez emazteari tratu txarrak eragiteagatik. Emakumeak zauri desberdinak zituen gorputzean eta ospitalera eraman behar izan zuten medikuek osa zezaten.

LAUDIN
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA
Industrialdea, z/g
138 Postakutxa
tf: 943752150
Faxa: 943752118
SORALUZE

JAVIER ALONSO ZELAIETA
434 ZENB.KOL
HORTZ KLINIKA
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

HNOS. BENITO ANAIAK
ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!
Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

SAHren sinadura-bilketa "aparkalekuen pribatizazioaren" aurka

Soraluzeko Askatasun Haizeak-ek jaietan hasitako sinadura bilketarekin jarraituko du, Erregetxeko "aparkalekuen gaineko informazioa eta herri eztabaida eskatzeko". Horretarako, sinadura-bilketa egingo dute urriko ostiral eta larunbatetan Udaletxe aurrean. Mahaiak 20:30etatik 21:30etara eta 12:00etatk 13:30era bitartean jarriko dituzte. Askatasun Haizeak plataformaren eritziz, "aparkalekuek publikoak izan behar dute, aparkalekuen arazoa soraluzetar guztiek sufritzen duten arazo bat delako gaur egun".

EHNA ateratzeko aukera
Bestalde, E.H.N.A. (Euskal Herriko Nortasun Agiria) eskuratzeko tramitazioak egiten hasiko direla jakinarazi dute ohar baten bitartez, hileko azken ostiraletan izango da Udaletxeko zinegotzi gelan, 19etatik 20etara bitartean.

"Kontu txikiak" haur eta gurasoen elkargozamenerako

Udaleko Euskara Batzordearen ekimenez, Soraluzeko 0 eta 3 urte arteko haurrek, "Kontu Txikiak" musika cd-a eta liburu bana jaso dute etxean, Cd-ak euskal tradizioko 48 haur kanta jasotzen ditu, erabileraren arabera gaika sailkatuak; janaria emateko garaian erabilgarriak, hatzekin jolastekoak edo mina kentzekoak esaterako. Liburua kantuen letrak jarraitzeko gida bat da eta haur-hiztegi bat ere jasotzen du, guraso euskaldun zein erdaldunendako azalpentxoa batekin datorrena. Material hori hobeto ezagutzeko ikastaro labur bat antolatu du Udalak. Ikastaroa 8 ordukoa izango da, 2 orduko lau saiotan banatuta, urriaren 6,13,20 eta 27an, arratsaldeko 7etatik 9etara.

Azken egunak euskaltegian matrikulatzeko

. Soraluzeko AEK euskaltegian urriko lehenengo astean hasiko dute ikasturte berria, Izena emateko epea, hala ere, aste betez luzatuko dute, taldeak ixteke daude eta artean. Informazio gehiago maisuen etxean edo telefono zenbaki hauetan eskura daiteke (943751434-943201379) . Eskolak, argazkian ageri den Iñaki Korta eibartarrak emango ditu.

Abesbatza Fuenmayorren eta Basaurin

Ezoziko Ama Abesbatzak kontzertu berri bat eskeiniko du hil honen 8an, zapatua, Fuenmayorreko Gran Coliseoan. Kantaldia bi zatitan banatuko dute: lehenengoan, pianoak lagunduta, Joseph Callaerts-en meza kantatuko dute; eta bigarrenean, pianorik gabe, era askotariko errepertorioa: habanerak, euskal kantak, ingelesak…Kontzertua gaueko 21:30etan hasiko da.
Bestalde, hil honetan bertan, 22an, gure herriko kantariak Basaurira joango dira bertako jaietan kontzertu berri bat eskeintzera.

Udalak begiraleak behar ditu

Udaleko Gazteria Zerbitzuko arduradunek ohar bat kaleratu dute urtean zehar haurrekin aritzeko begiraleak behar direla jakinaraziz. Izen ematea Udaleko Gazteria Zerbitzuan egin daiteke, edo 943753043 telefonora deituz. Izena ematen dutenekin lan-poltsa osatuko da eta lan beharren arabera lanpoltsakoei dei egingo zaie.

MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE

Mendata taberna

Berezitasunak:
Txipiroiak, Barazki Menestra, Gixauak...
Asteburuan plater konbinatuak
Enkarguak etxerako
(bazkariak eta afariak)

Kalebarren, 5
Tfnoa 943 75 13 87

Jaurlaritzak presak botatzeko asmoa du

"Urak juan eta presagiñian hasi", dio esaera zaharrak, . Alderantzizko zerbait gerta daiteke datozen hilabeteetan gure ibaian: presia desegin eta urak juan, alegia. Izan ere , Asmatu ingenieritza enpresa (Eusko Jaurlaritzako Ur zuzendaritzak horrela eskatuta) proiektu bat erredaktatzen ari da Soraluze uholdeetatik gorde eta ibaiaren antolamentu berria helburu duena. Proiektua urriaren bukaerarako idatzita egongo da. Horren ondoren, Udaleko ordezkariei proiektuaren kopia bidaliko zaie, eztabaida dezaten eta aldaketak proposa ditzaten.

Proiektua aurrera badoa...

Proiektua aurrera badoa eta gauzatzen bada (ez dirudi atzeruntz egingo duenik , urak ibaian gora egiten ez duen bezala), herriko presak botako dituzte: Plaza Zaharrekoa eta poligonokoa. Honek ur maila jeitsiko luke eta ibaiaren itxura nabarmen aldatu. Proiektuan bi ubide aurreikusten dira: ur haundietakoa bata eta ur txikietakoa bestea. Ibetondoa kurioso jartzeko asmoa dago eta ahal den lekuetan ibetondoko paseoa egitekoa ere bai.

Urpekarien bisita

Presak botatzen badituzte, inguruetako lur zati eder bat eraman beharko dute nora-nora. Horregatik zebilen irailaren erdialdera ingurugiro-aholkularitza enpresa bateko urpekari bat presa ondoko urazpitan laginketa edo muestreo bat egiten. Laginak bi presatan hartu zituen, urazpitako sedimentuak (kantitatea eta kutsadura maila) aztertu eta Jaurlaritzari hauek nola gestionatu aholkatzeko.

Irudian, presa ondora laginak hartzera etorri zen urpekaria

KREA
Barruko Arkitektura eta Dekorazioa
AINHOA LETE IRASUEGI
Tel.: 635731268

EDURTZA kafetegia
Taberna eta jatetxe zerbitzua
Eguneroko menua eta pintxoak
Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

ALBERTO GONZALEZ

-Jaurlaritzako Ur Zuzendaritzako Teknikaria-

“Helburua ibaia Soraluzen integratzea da”

- Zein da proiektu honen helburua?

Arrazoi desberdinak daude. Alde batetik, herriko zenbait gunetan urak gainezka egin dezake (zonas potencialmente inundables, bertsio originalean), Horregatik aztertu behar dugu Soraluzeko herriak ze nolako ubidea behar duen inundaziorik gerta ez dadin. Helburua ibaia Soraluzen integratzea da. Beste alde batetik saneamentua ere egin beharra dago.

- Uholdeak izateko arrisku haundia al dago?

Ez oso haundia, baina bai, arriskua dago Gipuzkoan erabiltzen ditugun parametroen arabera. Soluzioa presak bota eta ibaian ubide doble bat jartzea da, bata ur txikietarako (ur emaria txikia datorrenean) eta bestea ur haundietarako (ur emaria haundiagoa denerako)

- Zer ekarriko du presak botatzeak?

Ekologikoki mesedegarria izango da. Presa botatzean bi ubide izango dira ibaian eta ur bazterrak berdetuko dira. Aurrerantzean presa ez da oztopo izango arrainek ibaian gora egin dezaten eta nahikoa ur izango dute gainera, bakarra izateke, bikoitza izango baita ubidea. Bestalde, Deba ibaiaren Urbazterretako hirigintza-antolamentu berri bat gertatuko da. Itxura erabat aldatuko da eta ibai ertzean (ahal den lekuetan) paseo bat ere jarri al izango da. Guk horretarako prestatuko dugu, baina paseoa Udalak egin beharko du.



Irudian, ibaia Gabolatzeko zubipetik pasatzen

- Noizko burutuko litzateke proiektua?

Proiektua erredakzioa Urriaren bukaerarako amaituta egongo da. Hau gertatzen denean Soraluzeko Udalera bidaliko dugu. Ordezkari politikoek aldaketaren bat proposatzen badigute eta guk arrazoizkotzat joten badugu, proiektua aldatuko da. Lanak, administraziotik diru partida bat iristen denean hasiko dira, noiz ez dakit.

Txalaparta eta sendabelarren ikastaroak urrian

Pil-pilean Euskara Elkarteak antolatuta txalaparta eta sendabelarren ikastaroak egingo dira urrian. Txalaparta ikastaroa datorren astelehenean hasiko arratsaldeko 19:30etan Frontoian eta dagoeneko 8 lagunek eman dute izena. Sendabelarren ikastaroa berriz larunbat goizetan izango da. Datorren eguenean, urriaren 13an, bilera egingo da Pil-pileanen egoitzan. Bertan erabakiko da 3 saioak zein ordutan eman. Dagoeneko 7 lagunek eman dute izena. Matrikula 15 eurokoa (12 bazkide eta adin txikikoendako) izango da. Interesatuek 943751304 telefonora dei dezakete urriaren 5erarte.

1.100 Gramoko onddoa



Irailaren 29an, eguenean batu zituen Boskoitti baserriko Jesus Ariznabarretak iruditako perretxikuak. Perretxikuetako baten kilo eta ehun gramoko pisua zeukan eta bestea ere ez zebilen urruti. On egin!

Dantza taldea Lapurdira

Urriaren 9an, igandea, Soraluzeko Urrats dantza taldeko dantzariak Lapurdiko Arrangoitze herrira joango dira. Egun horretan herrian antolatuko diren ekitaldien barruan dantza egingo dute Bergara, Oñati, Antzuola eta Arrasateko dantzariekin batera.

Badihardugu ren liburu berria euskalkia hobetzeko



Deba ibarreko Badihardugu Euskara Elkarteak liburu berri bat kaleratu du: "Ahozko jarduna hobetzeko proposamenak". Bertan, eskuladeko hiztunok berba egiterakoan egiten ditugun akats ohikoenak azaltzen zaizkigu, dagozkien zuzenketekin. Irakurlearentzat lagungarri, ariketak ere badakartza liburuak.

Jokin Oregiren antzezlan berria

Jokin Oregi plazentziatarraren "Ez dut egia esan" antzezlan berria, Santurtziko Antzerki jaialdian estreinatuko da . Jaialdia irailaren 30etik azaroaren 25era bitartean ospatuko da eta danera, 24 obra ikusi ahal izango dira; horietako bat Jokin Oregik idatzi eta zuzendutako Ezin dut egia esan. Santurtziko Serantes kultur etxeak ekoitzi du obra, Tartean ekoiztetxearekin batera. Antzezlanetan, Euskal Herriko aktore ezagunek jardungo dute: Eneko Olasagasti, Reyes Molero, Olatz Beobide eta Patxo Telleriak.

KM Desing
Diseinua eta Sormena
Polígono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:
- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

UFALA irish pub
Garargardoa eta Kafea
aukera ugaria
943 75 0030

<< Gaztetatik, batean eta bestean liburuak erosten hasi nintzen >>

Pedro Martinez

Liburu biltzailea

Pedro Martinez (Soraluze, 1944) liburu zaharrak -originalen faksimilak- erosi eta biltzen aritu da 1965az geroztik. 40 urteren buruan, "munduaren historia hobeto ezagutzen" laguntzen duten liburu ikusgarriak paratu ditu bere Zarauzko liburutegiko apaletan.

" Nere liburutegian edozer gauza aurkitu daiteke; berdin gaur eguneko liburu moderno bat hala X.mendeko jatorrizko biblia baten faksimilea"

- Nondik datorkizu liburuak biltzeko afizioa?

Irakurtzea mutikotatik gustatu izan zait. Gogoan dut fantasiazko liburuak irakurtzen nituela orduan, Julio Vernerenak eta, baina zoritxarrez liburu gutxi zegoen sasoi hartan; dotrina irakurtzen genuen batez ere. Agian gabezia haregatik hasi nintzen gero liburuak erosten. Gaztetatik, nire lanak bidaiatzeko aukera eman dit, eta batean bata eta bestean bestea, liburuak erosten hasi nintzen banaka-banaka.

- Zer topa dezakegu zure liburutegian?

Edozer gauza; berdin gaur egungo liburu moderno bat hala X. mendeko jatorrizko biblia baten faksimilea.

- Zer da faksimilea?

Jatorrizko izkribu edo marrazkien erreprodukzio zehatza da faksimilea. Originala papiroan, pergaminoan edo larrutan idatzia bada, faksimila ere horrrela izango da. Sasoi bateko kopistek jatorrizkoaren kopia egiten zuten, eskuz; gaur egun inprimatu egiten dira, gehienez ere 1000 original bakoitzeko. Teknika oso aurreratuak erabiltzen dituzte eta adituek ere ezin izaten dute originalaren eta faksimilaren artean bereiztu.

- Ze pisu daukate liburu hauek?

15 eta 40 kilo bitartekoak dauzkat. Badaude pisutsuagoak: San Millan de la Cogollan 120 kiloko bat dago.

- Zeintzuk dira zure liburutegiko altxorrak?

Bat baino gehiago: Omar Khayyam-en "Rubaiyat", esaterako, XI. mendean astronomo eta matematikari pertsiarrak ardoari eta maitasunari egindako poemak jasotzen dituena. "Beato" famatuak ere, San Juanen apokalipsiaren iruzkinak, oso ikusgarriak dira, euren miniatura eta guzti. Gutembergek 1452an inprimatutako biblia ere badago; San Luisen biblia, kartografiazkoak, kaballeria liburuak...denetarik pixkat.

Asko gustatzen zaidan beste bat Leonardo da Vincirena da, bere asmakuntzen dibujo, giza-figura deforme eta abarrekin.

- Eta euskerazkorik ba al duzu?

Bitxikeria bat aurkitu nuen hauetako batean, "Oratio Dominica" –n. Liburu hau Pio VII.ak oparitu zion Napoleoni , eta bertan 155 hizkuntzatan dator jasota Aita Gurea; horietatik 3 euskeraz dira, iparraldeko euskalkiak.

Etxabe Harategia

Euskal txahalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

Instalaciones Kalebarren S.L.



GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

"Antxintxinka krossa" Soraluzetik Bergarara

Bergarako Antxintxika Triatloi Taldeak antolatuta, urriaren 12an, Soraluze eta Bergara arteko korrika lasterketa jokatuko da, "Antxintxika Krosa Servimasa Sari Nagusia" izena duena. Antxitxiketalariak 11:00etan aterako dira eta ibilbidea trenbidetik izango da. 11 kilometro egin beharko dituzte. Froga hau antolatzean atleta amateurraren figura aldarrikatu nahi dute. Izenematea Bergaran, 943 76 18 80 eta 943 76 25 03 telefonoetan egin daiteke.

Yoga ikastaroak urrian

Urriko lehenengo astean hasiko da Yoga. Aurten ere kiroldegiko etxean emango dira eskolak, astelehen-asteazken eta astearteostegunetan, goizez zein arratsaldez. Ordutegia ikasle eta irakasleen artean adostuko dute. Interesatuek telefono hauetara dei dezakete: 696220940 (Sabin) edo 615769110 (Jabi).

Jauregi berriz finalean

Iñaki Jauregik 2. finala jokatuko du 15 eguneko denbora tartean. Irailaren 17an Amezketako "Josean Tolosa" txapelketa garrantzitsuan 18 eta 10eko emaitzaz galdu zuen finalean Arrutiren aurka, 14 eta 0 ko hasiera kaskar baten ondoren. Zapatu honetan (urriak 1), berriz, Oñatiko txapelketako finala jokatuko du, Huizi lagun duela eta Ibai Bengoetxea eta Erauskinen aurka. Partiduak 22:30etan hasiko dira.

EMAITZAK

Esku pilotan

JAUREGI

Amezketako finalean

Arruti	18
Jauregi	10

Oñatiko txapelketan (finalerdietan)

Huizi –Jauregi	22
Urdaniz-Antxo	21

ATXOTEGI

Gipuzkoako txapelketa hasi berrian

Aizpitarte-Grajal (Hernani ord.)	22
Atxotegi-Portu (Elgoibar ord.)	16
Mendizabal-Azkarate (Antzuola)	22
Atxotegi-Portu	12

Futbola

Sora 1-Ikasberri 2 (erreg.)
Urki 3-Sora 0 (jub.)
Sora 0-Ikasberri 0 (kad.)

AJENDA

Futbola

Zapatuan 17:00etan
Zestona-Sora (Erreg.)

MENDIA

Urriaren 23an
Finalista Eguna
Billabonan

SALAZAR
Altzariak
Altzariak-Apaindurak
Sukaldeak - Elektratresnak
Errekalde, 7 -20590 Soraluze Telefonoa/Faxa: 943752388

TXOKO KAFETEGIA
Kafe ederra hartzeko txokorik onena!
Kalebarren 22 behea, telf: 943751780

IÑAKI IÑARRA
Harategi eta Urdategia

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze

Limpiezas MEN

Era guztietako garbiketak
Bulegoak - Komunitateak
Atariak - Garajeak
M. Carmen Alonso 690792816
Telefonoa 943753079 - 20590 Soraluze

Nerea Urra Lazkano

Aurtengo ikasturtean Plaentxi Herri Ikastetxean bertsoaren bitartez ahozkotasuna lantzeko metodo berria ezarriko da. Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak jartzen ditu irakasleak eta Nerea Urra arrasatearra da astean behin Soraluzera etorriko dena.

Ikasketak
Magisteritza

Adina
23 urte

Adiña?
30 urte

Ze zaletasun dittuzu?
Irakurtzia, bertsuak, turismo egittia, lagunekin juergan juatia....

Gustuko bertsolari bat?
Andoni Egaña.

Gustuko bertso bat?
Egañak, 1997 ko finalian burua gaitzat hartuta kantautakua.

Zela hurbildu zinan bertso mundura?
Ikastolan bertsolaritza lantzen gauen eta asko gustatzen jaten, Arrasaten bertso-eskola sortu zanian, lagun batzuk animau ginen.

"Ikusi da, bertsuen bidez, hizkuntza, sormena eta beste arlo asko landu leikela "

Bertsotan egitten dozu?
Bapatian aspaldi ez dot egin. Gauza danekin bezela, uzten hasi ezkero gero kostatu egitten da berriz hastia. Badaukot berriz lagun artian kantatzen hasteko asmua baina bittartian, bestiei gaixak jartzen jarraittukot.

Nun emon dittuzu eskolak?
Arrasateko eta Aretxabaletako bertso eskolatan irakasle nabil.

Zenbat ikastetxetan lantzen da bertsolaritza gaur egun?

Nerea Urra

Aurten Gipuzkuan 55 zentrotan landuko da ahozkotasuna eta bertsolaritza proiektua. 3900 ikaslek landuko daue. Gipuzkoaz gain Araba, Bizkaia, Nafarroa eta Iparraldian be proiektua martxan dau.

Zein da bertsolaritza landuz bilatzen dozuen helburua?
Ikusi da, bertsuan bidez hizkuntza, sormena eta beste arlo asko landu leizkela horregatik, proiektuak helburu diferentiak dauko. Ahozkotasuna, euskal kultura, bertsuan teknikak landu, bertsuaz gozatzia, bertso eskolen ingurua ezagutzia...

Ze harrera egiten dotse umiak bertsolaritzari?
Oso harrera ona. Modu ludiko baten lantzen dogu eta oso eramangarrixa izaten da. Oso gustora lantzen daue astian behin bertsolaritza.

Zein da zure faboritua aurtengo txapela jazteko?
Ez daukot faboritoik, igual gustatuko jaten txapela buru desberdin batera pasatzia.

Bota puntua!
Txapel ta txapelketa
hau buruhaustea!



1935ean Batzokiko ataixan

1935. urtian Batzokiko atian etaratako argazkixa da. Erregetxeko eskolan ikasten zeben 11-14 urte bittarteko mutikuak azaltzen dira bertan. Goreneko ilaran (ezkerretik eskumara); Zelestino Menendez (+), Gotzon Uzin eta Jesus Garmendia. Goittik hasitta bigarren ilaran; Manolo Ezenarro (+), Jose Ezenarro (+), Martin Izagirre (+), (?), Eugenio Larrañaga (+), Benito Cerrajon (+), Don Antonio (Maisua), Esteban Gallastegi (+), Migel Maiztegi (+), Gonzalo Gorostidi, Bernabe Goiain, Jose Luis Larreategi (+), "Bando" Zarobe (+) eta Jose Berrueta. Hirugarren ilaran; Julian Adanez (+), Julian Bandaormaetxea, Enrique Pintado, Fabian Gojeaskoetxea (+), Modesto Arana, Gregorio Argarate (+), Juanito Alberdi, Fernando Esnal (+), Eugenio Mendiola, Anjel Elizburu (+), Lorenzo Zabala (+), Gregorio Zabala (+), Sergio Zabala (+), Jesus Mari Zabala (mutikotxua) (+), Amalio Hondartza (+). Laugarren ilaran; Juan Manuel Lasa (+), Inazio Agirregoikoa (+), Pedro Gabilondo, Manuel Kerejeta, Pako Uzin, Jabier Garmendia (+), Karlos Badiola, eta Andres (+), Jose, Emiliano (+) eta Manolo Lopez.

Iturriak: Mauri Garmendia (argazkia) eta Julian Bandaormaetxea (izenak)

Lehiaketa

Aurreko alean...

Erantzuna...:
seinalearen irudia aldatuta dago

...eta irabazlea:
Ez du inork asmatu

FER. S.A.
Industriak
Eskulanetarako tresnak
Industrialadea, 17 - 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es

Ugaraxo

2.005eko iraila

Lehen ikasturtea

ikasTURtE BErriXA, zahARRAk BErri!
ai ene! ZE PazienTZIA!

8urteko ume bat naiz eta kontatzea nahi dotsuet ze komerixak erabiltzen dittugun gure eskolan kaka egin ahal izateko. Ba... 2. pisuko komunian prohibidu egin doskue kaka egittia, bai, ondo entzun dozue, prohibidu kaka egittia, pentsa! Ezin dogu komunian kaka egin! Nun egin bihar dogu ba? Kalian txakurrak moduan ala?

Jo! Animali guztixak libre dauke nahi daben lekuan kaka egittia, gogua euki eta hala! hantxe bertan. Guk ez! Guk, zintzozintzo komun zuluan egin bihar dogu, eta gure eskolan hori bez, ez dakit ba... horregatik ipiniko eben komunetako atian hor ikusten dan elefante horren argazkixa?

Esaten dabe, eta hori nik nere begixekin be ikusi dot, bonbia bota ezkero, komuneko papera be, ez dabela eruaten, pentsaizue, nola eramango dittu ba gure kaka mokorduak? Guretaiko bateronbat despistau xamar baldin badabil edo beherakua daukalako komun zulo horretan kaka egitten badau, a zer nolako perfume goxua lagatzen dogun eskola guztixan!

Nik, agintarixei eskatuko notseke laister arreglatzia, ze... beheko komunak erabiltzeko hainbeste ume garanez, sarri-sarri ikusten dogu letrero hau: "komun hau hondatuta dago, ez erabili!" . Gainera, batzuetan ikusi izan dittut eskolako txikixenak aretoan be,

eta bertan bateronbati kakaguria sartzen bajako andereñuak beheko komunetara laguntzen dotsan bittartian, beste guztixak bakarrik geratzen dia. A! zer nolako iskanbilak sortzen diran goixan!

Eta... horrela segittu bihar dogu institutora juan arte? Aibala! Beste lau urte holaxen!

TXIKI-INKESTA

Ze gustatzen jatzu jatia gehixen? eta gitxien? litxarrerixarik jaten dozu?

MARKEL BARRUTIA, 6 A, 11 URTE

Makarroiak gustatzen jataz gehixen. Gitxien berdurak. Armozatzeko esnia hartzen dot gailetekin. Meriendatzeko nozillia ogibittartian, eta asteburuetan gusanituak eta yupies, nere litxarrerixa faborituak

LIERNI ELIZBURU 5 B 9 URTE

Espagetixak eta sopia gustatzen jataz, Lekak ez jataz gustatzen. Gosaltzeko kolakaua hartzen dot, gailetekin. Meriendatzeko ogibittartekua iogurra eta frutia. Nere litxarrerixa faborituak jumpersak dira.

SONIA ARRIBAS 5 B 10 URTE

Neri oilaskua eta makarroiak gustatzen jataz gehixen. Barazkixak ez jataz gustatzen, purian bakarrik. Gosaltzeko esnia kolakauakin eta madalenak edo gailetak. Litxarrerixak asko gustatzen jataz.

MARTIN AZKARATE, 6.A 11 URTE

Pastia gustatzen jata gehixen: makarroiak, spagetixak...eta gitxien ensaladia. Gosaltzeko esnia, zerealak eta yogur bat eztixakin. Litxarrerixak be gustatzen jataz, gehixen asteburuetan jaten dittut.

JOKIN PARRA, 6.A, 11 URTE

Neri gehixen arroza gustatzen jata, gitxien berdurak. Gosaltzeko tostadak, gailetak eta zerealak jaten dittut. Meriendan ogibittartekua eta frutia. Litxarrerixak ostiral, larunbat eta domeketan jaten dittut.

MARTA VIDAL, 5. B 9 URTE

Makarroiak tomate eta gaztaiakin gustatzen jataz. Azelgak ezebe. Gosaltzeko esnia ta gailetak. Gehixen gustatzen jatana da, gose haundixakin jaikitzen naiz eta. Dirua emoten dostenian gominolak.

"Komunari!"

Hona bertso politt bat
gure komunari,
aspalditik tripetatik
gaixo dauanari,
goizero galdetzen dotsat
andereñuari,
noiz ekingo dotsazun
berriz jatiari?

KAIXO, HEMEN GAUDE ESKOLAKO TXIKIENAK.

NAHIZ ETA BATZUTAN NEGAR PIXKA BAT EGIN, OSO GUSTORA EGOTEN GARA GELAN HORRENBESTE JOSTAILUEKIN. LAGUN BERRIAK EZAGUTZEN ARI GARA ERE.

ZE ONDO GAREN ESKOLAN GURE ANDEREÑOEKIN!!!!!!

....zatoz bertso eskolara!

Bertsoak gustuko dituzulako!
Ondo pasatu nahi duzulako!
Kantatzea gustatzen zaizulako!
Irudimenari ateak zabaltzeko!
Lagun artean eta lotsarik gabe!

-IZENA EMATEKO-
EGUNA: Urriaren 7an
ORDUA: 19:00etan
NUN: bertso-eskolan
ZETAKO: egunak zehazteko

Ibilixan Ibilixan Bertso-Eskola

ipuin harrigarriak

Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

Ipuin harrigarriak 1
Kastillopranko • Biribil-biribilak

Ipuin harrigarriak 2
Dar-dar • Ondo eginaren ordaina

Ipuin harrigarriak 3
Gatza ala erregea • Biziak ezagutzeko hil

Ipuin harrigarriak 4
Zapatari asmatzailea • Zerraldoan bizirik

Ipuin harrigarriak 5
Ikazkina eta heriotza • Besterik ez bezalako kapela

Ipuin harrigarriak 6
Estudiante Tonto • Ezkonberriak

Ipuin harrigarriak 7
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki • Zeruko berriak

Ipuin harrigarriak 8
Pepetxu eta Popatxu • Kardulatza salatari

Urriaren 8tik aurrera ASTEBURUETAN

+ 3 €

Laguntzaileak:

Gipuzkoako Foru Aldundia

Bizkaiko Foru Aldundia · Diputación Foral de Bizkaia · Bizkaia

Euskaldunok behar dugun berria

IKASTAROAK

Sendabelarrak



Txalaparta

Izena emateko:
943 75 1304

Bazkunzailea:

Soraluzeko
udala

Autolaburpena:



Pil-pilean
tuska

AEK, Euskararako zeure garraiobidea

Freskatu zeure euskara

Egon zaitez eroso

EGA, hizkuntz eskakizunak

Euskal Herria euskalduntzen

Helmuga Euskara!

Gorde zeure eserlekua!

Ikasgu hornituak

Banakako irakaskuntza

Metodologia komunikatiboa

Ikasgu homologatuak

SORALUZEKO AEK
Tel. 943 20 13 79 soraluze@aeknet.net/ eibar@aeknet.net
Epea: irailaren 23 rarte